

VI. Pegatina lehiaketaren oinarriak

Festetan alkohol gehiegi edatearen kontrako pegatinen lehiaketa

Lehena: Parte-hartzaileak

Lehiaketa honetan 16 urtetik gorako edozein pertsonak parte hartu ahal izango du, banaka edo taldean, epaimahaikoek eta Zarauzko Udaleko langileek izan ezik. Egile bakoitzak gehienez lan bat aurkeztu ahal izango du eta originala eta argitaragabea izango da.

Bigarrena: Gaia

Gehiegizko alkohol kontsumoa egiten da festetan eta jaietan. Pegatinak horren kontrako mezua eduki behar du. Lehiaketa honekin eta bertan irabazlea izango den irudiarekin herrian sentsibilizazioa egin nahi da. Irudi horrekin Udalak pegatinak egingo ditu jaietan banatzeko eta jaietako egitarauan pegatinaren irudia azalduko da.

Hirugarrena: Ezaugarri teknikoak

Idatzia: norberaren aukeran, euskaraz izango da.

Lanak nahitaez ordenagailuz egingo dira eta e-mailez bidaliko dira helbide honetara: prebentzioa@zarautz.eus

Lanaren artxibo bat bidali behar da ondoko ezaugarriekin:

- ▲ **Formatu digitalizatuan:** tiff
- ▲ **Berezimena:** 300 p.p.p
- ▲ **Neurria:** 7 x 7 zmkko proportzioa, borobila edo lauki itxurakoa.

Pegatinak lema bat eduki beharko du. Lema euskaraz izango da.

Lana aurkezteko:

E-posta bidez bidalitako artxiboari izen bat jarri behar zaio, kartela identifikatzeko.

Artxibo horrekin batera, kartelaren artxiboari emandako izen berbereko karpeta batean egilearen datuak bidali behar dira. Dokumentuan honako datuak jarriko dira nahitaez:

- Izena eta bi abizenak
- NAN zenbakia
- Jaiotze-eguna
- Helbidea
- Telefonoa
- Posta elektronikoaren helbidea

* Adibidez, "haizea" izena aukeratzen badugu:

Karpeta konprimatu batean honakoak bidaliko dira: batetik, kartela *haizea.tiff* izena jarrita eta, bestetik, "haizea" izeneko beste karpeta bat, barruan egilearen datuak adierazita dokumentu batean.

Egileen datuen karpetak ez dira irekiko epaimahaiak kartel irabazlea aukeratu arte. Ez da inolaz ere onartuko beste egile eta erakunderen batek erabilitako irudi edo irudi-plagioekin egindako lanik; eta arrazoi horrengatik gerta litekeen edozein arazoren erantzule bakarra egilea bera izango da.

Pegatina saritua Udalaren esku geratuko da. Udalak, pegatina argitara emateko eskubidea bere gain hartzen du.

Laugarrena: Aurkezpena

Lanak aurkezteko epea hau izango da: 2019ko maiatzaren 13tik 2019ko maiatzaren 27ra

Non:

prebentzioa@zarautz.eus

Bostgarrena: Saria

Bi sari egongo dira:

- 1.- Epaimahaiak emandako saria. 300 euroko balea Murkileko dendetan produktu hauek erosteko: arropa, oinetakoak, audiobisualak eta abar.
- 2.- Jendeak facebooken gehien bozkaturako irudiaren saria. 150 euroko balea Murkileko dendetan produktu hauek erosteko: arropa, oinetakoak, audiobisualak eta abar.

Aurkeztutako lanak oso kalitate txikikoak badira, lehiaketako saria eman gabe uztea erabaki dezake epaimahaiak.

Saria emandakoan Zarauzko Udala lanen jabe legitimoa izango da, bai eta lanak ustiatzeko eskubideen jabea ere. Halaber, oraingo eta etorkizuneko euskarri eta plataforma guztietan saritutako lanaren erreprodukzioa, moldatze, banatze, komunikazio eta zabaltze eskubideen jabea izango da.

Seigarrena: Epaimahaia

Epaimahaikideak nortzuk diren erabakia ematen den egunean jakinaraziko da.

Epaimahaiak, oinarri hauek irakurtzerakoan sor daitezkeen zalantzei bere kabuz irtenbidea emateko ahalmena du.

Epai-mahaiak maiatzaren 31an emango du ezagutzera bere erabakia eta atzeraezina izango da.

Zazpigarrena: Lanen hautaketa eta bozketa:

Lan irabazlearen hautaketa: Lehiaketara aurkeztu direnen artean eta baldintzak betetzen dituzten pegatinen artean epaimahaiak pegatina irabazlea aukeratu. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da eta jakitera emango da 2019ko maiatzaren 31an Prebentzio Zerbitzuko blogean (<https://prebentzioa.wordpress.com/> eta Facebooken)

Bozketa: Bigarren sari bat egongo da, horretarako jendeak Facebooken bozkatu ahal izango du.

“ Festetan alkohol gehiegi edatearen kontrako pegatinen lehiaketa” izeneko albumean,

epaimahaikideek jendeak bozkatzeko aukeratutako irudiak jarriko dira, eta jendeak bozkatu ahal izango du “me gusta” atalean klik eginez. Boto gehien lortzen duen kartelak 2. saria lortuko du. Bozkatu daiteke, ekainaren 3ko goizeko 10:00etatik ekainaren 7ko goizeko 10:00etara. Bozketaren emaitza ekainaren 10ean argitaratuko da.

Zortzigarrena: Sarituak edo hautatuak izan ez diren lanak

Pegatinen egileek aurkeztutako pegatina itzultzea eskatu ahal izango dute, irabazlearen aukeraketaren erabakia argitaratzen denetik 30 eguneko epean.

Aipatutako epe horretan egileek beren lanak itzultzea eskatzen ez badute, ulertuko da horien jabetzari uko egiten diotela Zarauzko Udalaren alde. Kasu horretan, Udalak nahi duenerako erabili ahal izango ditu, inongo erreklamazio edo kalte-ordainetarako eskubiderik onartu beharrik izan gabe.

Lehiaketa honetan parte hartzeak berekin dakar oinarri horiek guztiak onartzea.

Informazio gehiago:

Zarauzko Udala – Prebentzio Zerbitzua

Zigordia kalea, 33 20800 ZARAUTZ (Gipuzkoa)

Telefonoa: 943-005127

Posta elektronikoa: prebentzioa@zarautz.eus

Bloga: <https://prebentzioa.wordpress.com/>

Facebook: <https://www.facebook.com/prebentzioa.zarauzkoudala>